

MATIA

Fundazioa

Ricardo Bermingham ospitalea

RICARDO BERMINGHAM OSPITALEA

Camino de los Pinos 35
20018 San Sebastián
Tel: 943 31 71 00
Fax: 943 31 27 01



MATIA FUNDAZIOAren Ospitale Medikuntzako zerbitzuak 103 ohe ditu.

Jarduera

Kirurgikoak ez diren patologiak artatzen ditu, batez ere kronikoak. Patologia neurologiko eta traumatologikoak errehabilitatzeko programak ere eskaintzen ditu, eta gaixo onkologikoentzako asistentzia aringarria ere bai. Beraz, geriatría-unitate hutsa ez bada ere, adinduei loturiko patologietan espezializatuta dago.

Ospitaleak problematika konplexuari heltzen dio, izan ere, erabiltzaileen osasun-beharrei ez ezik, haien behar sozialei ere erantzuten die.

Unitateak

Ospitaleak hiru unitate ditu:

- Geriatría-medikuntza, susperraldia eta egonaldi luzea
- Errehabilitazio ambulatorko unitatea
- Zainketa aringarrien unitatea

Unitate horiek guztiek zerbitzu osagarriak dituzte:

- Erradiologia
- Análisi klinikoen laborategia
- Farmazia-asistentzia
- Psikologia klinikoa
- Gaixoari zuzendutako arreta



Guzti honarako, 150 jarduera-prozedura eta protokolo baino gehiago ditugu garatuta, zentro guztietako arreta ezagutzen oinarritua eta homoginoa izan dadin.

Geriatría-medikuntza

Zerbitzu hau batez ere adin geriatrikoan dauden gaixo akutuek edo sarritan agudizazioak izaten dituzten gaixo kronikoei erabiltzen dute. Patologia ugari izan ohi dituzte, eta, horregatik, osasun-kontrol etengabea behar dute. Kasu askotan, gainera, halako gaixoen arazo soziala ere jasaten dute, eta horrek etxean arreta egokia jasotzea eragozten die.

Hauk dira zerbitzuaren helburuak:

- Ingresatzea eragiten duen gaixotasuna ahal dela sendatzea edo hobetzea, eta sintomak kontrolatzea.
- Gaixoen balorazio integrala egitea, horien beharrak antzemateko eta baliabiderik egokienak eskaintzeko.
- Gaixoen normalizazio soziala lortzea, beren etxea dituzten beharretara egokituz edo egoitzan plaza bat emanez.

Ospitale-errehabilitazioko unitatea:

Bere egitekoa da gaixoei galduta duten gaitasuna berreskuratzen laguntzea, eta hori ezin bada, ahalik eta gehien hobetzea.

Zainketa aringarriak

Matia Fundazioaren zainketa aringarrien unitateak 10 urtetik gora daramatza lanean, eta bera izan zen Euskadin sortu zen zainketa aringarrien lehen ospitale-unitatea. 1993tik Osakidetzarekin itunduta ditu bere zerbitzuak.

Helburua :

Zainketa aringarrien unitatean, fase terminalean dauden gaixoen zaintzen eta artatzen dira, hau da, tratamendu sendagarriak agortuta dituztenak. Gaixo horien bizi-kalitatea amaierara arte hobetzen saiatzen da, honako hauen bidez:

- banan-banako arretaren bidez
- arreta etengabe eta osoaren bidez

Horretarako, gaixoaren behar fisikoak, emozionalak, sozialak eta espiritualak hartzen ditugu kontuan, prozesua eta gaixoaren eta senitartekoen ingurua gizatiartzeko.

Lan-metodologia

Unitate horretan diziplina ugariak dituzten profesionalak egiten dute lan:

- medikuak
- erizain-taldeak
- psikologoak
- gizarte-langileak
- boluntarioek: minbiziaren aurkako Espainiako elkarteak (AECC) eta zainketa aringarrien Euskadiko elkarteak (SVPC).

Taldea etengabe biltzen da, gaixoaren egoera eta ingurua baloratzeko. Bileretan, gaixoaren zainketa-plan indibiduala eta taldekide bakoitzaren lan-plana zehazten dira.